

STONE HANSEN

Gure garai hauetako arte munduan garrantzi handiko aldaketak gertatzen ari direla baieztatuz hasi zuen bere mintzaldia Stone Hansen artista eta ikertzaileak, *We Rule The School: Elkarrizketak eta ikerketa* mintegian. Stone Hansenek, batez ere Europako Iparraldeko herrialdeak izan zituen hizpide, lurralde horietako arte egiturak errotik eta zitzu bizian aldatzen ari direnez gero. Helburu pribatuko korporazio handien itzala gero eta luzeagoa da museo en egituretan eta lehen lanbidearen adierazgarri ziren tituluak desagertu egin dira. "Arteko, Arkitekturako eta Diseinuko Museo Nazionalean, adibidez, profesional guztiak komisario dira orain, zuzendaria izan ezik. Inork pentsa lezake demokratizatze prozesu baten ataria dela hori, baina kontrakoa da hain justu. Izan ere, inork ez du jakintza berezirik eta edonork edonor ordezkari dezake. Museo handiek enpresa handien antza dute, gero eta gehiago", adierazi zuen Stone Hansenek.



Baina, aldi berean, beste elkargune txiki batzuk ari dira eratzen instituzioetatik kanpo. Adiskidantzak eta lankidetzak bultzatuta, baina baita botere-egitura berrietatik pairatzen duten bazterketa sistematikoak eraginda ere, elkartu diren artistez eta ekintzailez osatutako elkarguneak dira. Testuinguru horretan, galdera hau egin beharko genuke Stone Hanseren arabera, hau da, "instituzioen eremua utzita gure borroka beste eremu batera eramane behar al dugu?, ala instituzioen barruan borrokatzen jarraitu behar al dugu?".

2003ko urtetik hasita, politika kulturala eta artea arautzeko lege ugari argitaratzen dira aldi-aldi, bai Norvegia eta baita Europako Iparraldeko beste herrialdeetan ere. Legeak zenbat ugaltzen ari diren ikusita, Stone Hansenen ustez argi eta garbi dago kultura zein interesgarri den politikarentzat: "Burokraziak gero eta pisu handiagoa du eta fundazio pribatuak gero eta itzal luzeagoa artearen egitura publikoetan. Fundazio pribatu horiek dira zuzendaritzako jendea aukeratzen duena, eta kulturarekin harremanik ez duten pertsonak aukeratzen dituzte gehienetan. Artista gazteek ondo aztertu behar dute arteak, artistek eta instituzioek politikagintzan sortu duten arreta berri hori, gertaera horrek dakartzkien abantailak baliatzeko, noski, baina baita dituen arriskuez ohartzeko ere".

Osloko *Arteko, Arkitekturako eta Diseinuko Museo Nazionalea* da, hain zuzen, artearen joera desberdinak pribatizatzen eta fusionatzen ari direla frogatzen duen adibidea. Museo hori 2001eko urtean sortu zuten, fundazio pribatuen eredupean. Bere egituraren barruan, lehen funtzionamendu independentea zuten bost museo eta instituzio daude. Operako, antzerkiko, bailetako, ikus arteko, diseinuko eta arte

ederretako ikastaroak ematen dituen Osloko *Arteko Akademia Nazionalea* izan daiteke horren guztiaren beste adibide bat. Akademia horretan, diziplina bakoitzak bere zuzendaritza taldea zuen lehen; orain, berriz, talde bakar bat dago gauza guztietarako. "Horrelako egitura baten ondorioz, elkargune horietatik kanpo lan egiten duten artistei eta taldeei asko murrizten zaizkie laguntzak lortzeko aukerak. Beste aldetik, arriskuan jartzen da bizirauteko diru laguntzak behar dituzten zentro independenteen etorkizuna" adierazi zuen Tone Hansenek.

Appendix eta Arte-eremu independentearen aldeko manifestua

Nahiz eta bera izan zen Osloko *Arteko, Arkitekturako eta Diseinuko Museo Nazionalaren* sorrera jendaurrean errukirik gabe kritikatu zuten ahots bakarretako bat, Tone Hansenek museoaren gonbitea jaso zuen *Kiss the Frog, the art of transformation* mostraren barruan bere erakusketa egin zezan. Eztabaida askoren ondoren, erakusketa-gune nagusitik atera eta albo batean gorritz pintatutako kristalezko ate gidaridunez isolatuta, *Appendix* izeneko gune independentea sortu zuen. Horrez gain, *X Museoa* izeneko karpeta argitaratu zuen, non agertzen zuen zer izan behar zuen Osloko *Museo Nazionalaren* ezaugarriko museo batek: "Hautazko beste bide bat erakutsi nahi nuen, museoak hartzeko modukoa. Nire jarrera agerian jarri nahi nuen, eta besteen iritziak entzun behar zirela planteatu, ahotsak elkarren ondoan jarri". *X Museoa* departamentutan banatzen du museoa, eta museoak ez duela osotasun zatiezina izan behar erakusten du. Ideia hori irudikatzeke, diseinu grafikoazko hizkuntza bat asmatu zuen: zeinu sistema bat da, zatitan banatu bai, baina elkarrekin ezin erakutsi daitezkeen zirkuluek osatua. Tone Hansenek, hizkuntza berri horrekin egindako esaldi bat *Appendix*-en paretan idatzi eta itzul zezaten eskatu zien ekintzaile bihurturiko bisitariei. Azkenik, *Arte-eremu independentearen aldeko manifestuak* Tone Hansenen proposamenaren alde teorikoa erakusteko balio izan zuen. Munduko hogeita hiru lagunek testu txikiak idatzi zituzten eta Norvegiako astekari nazional batean argitaratu zituzten erakusketaren inaugurazio egun berean. "Ez nuen nahi museoa *Manifestuaren* jabe izatea eta horregatik erabaki nuen nazio mailako agerkari batean argitaratzea", adierazi zuen Tonek.

Artearen munduan gertatzen ari diren aldaketak kontuan hartuta, hauek dira Tone Hansenen ustez egin behar diren galderak: Zeinek definitu behar du zer den artearen espazio publikoa? Nola lor daiteke instituzio artistikoen autonomia defendatzea eta erdigunetik kanpo dauden taldeekin eta artistekin bat egingo lukeen arte-jokamolde erradikalaren alde jokatzeko aldi berean? Parametro eta definizio berriak sortu behar dira, burokrazia eta enpresa jokamoldetatik at, erronka horiei erantzun ahal izateko.

CC

Artikulu hau Attribution-NonCommercial-ShareAlike gisako Creative Commons lizentzia baten mende dago. Banatu eta jende aurrean erakuts dezakezu irabazi asmorik gabe baldin bada. Horrez gain, hemendik eratorritako lanik sortzen baduzu, lizentzia beraren mende egin behar duzu.